



# nagusilan

adin nagusikoen giza boluntariotza  
voluntariado social de mayores

NAGUSILANEKO ALDIZKARIA

XVII URTEA • 139 zenbakia • ABUZTUA 2017

Lege Gordailua D.L./L.G. SS-1120/01

## Nekeetan, irria ezpainenetan

Guztiok, gure bizitzako une batean baino gehiagotan, erabili dugu “Nekeetan, irria ezpainenetan” esaera (edo “Ogi gogorrari, hagin zorrotza”), eta aurrera jarraitu dugu gure jarduerarekin. Oraingo honetan, zenbait herritako Nagusilanekeko boluntarioek ere gauza bera esan eta egin dute.

Ekaineko eta uztaileko egun askotan, egoitzetako adinekoekin udako paseo bat egiteko guztia prestatu ondoren, planak aldatu behar izan dituzte eguraldi txarra dela eta.

Rosarito Rementeriak, Mutrikuko taldeko arduradunak, esan zigun bezala, “eguraldi txarrak ez digu eguna hondatuko; planak aldatuko ditugu, besterik gabe”. Behin

baino gehiagotan geratu dira eguraldi onaz gozatzera atera gabe edo porturainoko paseo bat ematera joan gabe (itsasora begira dagoen terraza batean pintxo bat hartzeko), baina hori gertatu den guztietan jakin izan dute antolatzen, San Migel egoitzaren barnean ondo pasatzeko. “Nekeetan, irria ezpainenetan” esaera aplikatu dute, eta jaialdi oso bat antolatu dute, abesti, dantza eta guzti, egoitzako erabilera askoko aretoetan.

Guztiok gozaten dugu izugarri udako paseoez, aire freskoa gure masailetan sentitzeaz eta bista zoragarriko terrazetan egoteaz (argazkian ikusten den bezala), baina, gure adinekoekin egun polit bat igartzeko, eguraldi ona ez da ezinbestekoa.



## www.nagusilan.org

  
nagusilan  
adin nagusikoen giza boluntariotza  
voluntariado social de mayores

### GIPUZKOA

Tel. 943 47 50 21 - Fax 943 46 55 81  
Tel. Hilo Plata / Zilarrezko zk.: 900 71 37 71  
Resurrección M.ª de Azkue, 32 bajo.  
20018 Donostia - San Sebastián  
e-mail: info@nagusilan.org

**Kutxa Gipuzkoa  
Solidarioak**  
onartutako egitasmoa  
Proyecto apoyado por  
**Kutxa Gipuzkoa  
Solidarioa**



## Nagusilanen Batzar Orokorra 2017ko ekainaren 23a

Joan den ekainaren 23an, goizeko 11etan, Medikoen Elkargoaren Ekitaldi Aretoan, Nagusilanen Ohiko Batzar Orokorra egin zen. Aurretik deitu zen batzar hori, 2016. urtean egindako ekintzez informazioa emateko eta ekitaldi horretako (dagoeneko itxita) datu ekonomikoen egoera aztertzeko.

101 pertsona boluntario agertu ziren, eta beste 67k beren botoa eskuordetu zuten. Bilerako buru José Luis Elosua Sánchez jauna izan zen, elkarteko presidentea, eta Jesús M<sup>o</sup> Zaldua Iñurrategi jaunak (idazkaria) eta Enara Solabarria Morena andreak (zuzendari-gerentea) lagundu zioten. Presidenteak jendea agurtzeko hitz batzuk esan zituen, batez ere Arabako kideentzat, eta ekitaldia hasi zuen.

Idazkariak aurreko batzarreko akta irakurri zuen, eta behin betiko onartu zen.

Jarraian, aldez aurretik argitaratutako gai-zerrenda landu zen; lehen gaia 2016. urteko kontuen irakurketa izan zen. Enara Solabarria andreak xehetasunez adierazi zituen 2016. urtean zehar sortutako gastu- eta sarrera-partida garrantzitsuenak. Kontu horiek aho batez onartu ziren – aurretik Zuzendaritza Batzordeak aztertuta eta onartuta zeuden–. Bestalde, zuzendaritza-batzordeak Felipe Cruz Bienzobas (ROAC 2522) jauna izendatu zuen kontuak



aztertzeko kontu-auditore. Enara Solabarria andreak hurrengo sei hilabeteetarako ditugun erronkak ere zerrendatu zituen.

Ondoren, presidente jauna hitz egiten hasi zen, 2016. urteko gertaera garrantzitsuenak aipatzeko. Gainera, agertu zirenei eskerrak eman zizkien, agur berezia eskaini zien lehen aldiz gure batzarrera joan zirenei eta oroimen hunkigarria izan zuen urtean zehar betirako utzi gaituztenentzat. Oroimen horren harira, minutu bateko isilunea egin genuen.





## **Zaindariaren eguna ospatuz**

Udako egun hauetan, herri askotan zaindariaren eguna ospatzen da. Familiak eta lagunak elkartzen dira San Juan, Santa Ana, San Fermin, San Ignazio eta abar ospatzeko. Guztiok hartu nahi dugu parte festa horietan, lagunekin egoteko, ezagunak eta auzokideak agurtzeko eta festa-giroa bizitzeko.

Ordiziako, Azpeitiko, Errenteriako, Mutrikuko eta

gainerako herrietako Nagusilaneko boluntarioek ahalegin berezia egiten dute egun horietan, egoitzetako eta eguneko zentroetako adineko pertsonak ere festa-giroaz goza dezaten. Boluntarioak antolatu egiten dira adineko pertsonekin paseatzera joateko, bai eta herri-bazkarietara, pilota-partidak ikustera eta festen hasierako txupinazoaz gozatzera joateko ere; helburua, azken batean, festa egoitzakoei hurbiltzea da. Beste era batera esanda: guztiei, adinak adin, festa-giroaz gozaraztea.



## Ikasturte amaiera Tipi Tapan

Osakidetzak adineko pertsonak ibiltzera animatzeko sustatutako paseo osasungarriak –izen bat baino gehiago hartu dute– harrera ona izaten ari dira Gipuzkoako adinekoen artean. Nagusilan modu aktiboan ari da lan egiten, horrelakoak sustatzeko eta garatzeko. Herri askotan (Legazpi, Beasain, Ordizia, Irun, Tolosa, Lasarte, Zumaia...) Nagusilaneko boluntarioek astero laguntzen dute paseoetan. Herri bakoitzak bere modu berezia du antolatzeko, baina guztietan daude Nagusilaneko boluntarioak talde antolatzailean edo eragilean.

Uda-garaian, sarritan bero egiten duenez eta beste ekintza batzuk egiten direnez, Tipi Tapak oporrak hartzen ditu, eta irailean itzultzen da bere ohiko jardunera.

Ikasturtean zehar paseo asko egin dira eta pertsona askok ezagutu dute elkar. Nagusilaneke era aktiboan lagundu du adin eta egoera fisiko desberdinetako pertsonak ibilaldi horietan parte har dezaten, harremanak egin ditzaten eta, elkarrekin ibiliz, hitz eginez eta abestuz, goza dezaten.



Ikasturtea ixteko, herri askotan paseo bat eta ekitaldi berezi bat antolatu dira: hamaiketako zoragarriak egin dira eta sariak eman zaizkie gehien joan direnei. Esate baterako, Beasainen ekitaldi oso polita antolatu zuten, hamaiketako eder batekin; Irunen, berriz, San Martzialetakoa jantziarekin egin zuten azken paseoa, eta Maria, 88 urteko emakumea, izendatu zuten kantinera nagusi. Hondarribian, ekitaldi bat antolatu zuten, eta bertara kirol-zuzendaria eta Juan Luis Silanes zinegotzia joan ziren, ibiltari aktiboenei oparitxo batzuk ematera eta Nagusilani bere inplikazioa (paseoak antolatzen) eta bere partaidetza (San Gabrieleko adinekoei laguntzen) eskertzeraz.



## Gure adinekoek elkartuta – Bazkaria Unión Artesanan

Joan den ekainaren 28an, adiskidetze-bazkari bat egin zuten Unión Artesana elkartean boluntarioek, Lourdesko Amaren Abegi Onen elkarteko zuzendaritzako kideek, Nagusilaneko zuzendaritzako kideek eta Sanitas egoitzako adinekoek.

Bazkaria gure boluntario Javier Llorcak proposatu eta antolatu zuen; izan ere, Unión Artesanako bazkidea, Lourdesko Amaren Abegi Onen elkarteko boluntarioa eta Nagusilaneko boluntarioa da. Javierrek Sanitasen egiten du lan, astero bingoa kantatuz, adinekoak entretenitzeko.



Bazkariaren amaieran, Sanitaseko Zuzendaritzak Unión Artesanaren lana aitortu zuen; horretarako, plaka bat eman zion elkarte horretako presidenteari, azken urteetan Sanitas egoitzan dauden adinekoak Unión Artesanaren tanborradarekin alaitzeagatik.

Merezi du Lourdesko Amaren Abegi Onen elkarteko boluntarioen lana nabarmentzea, Sanitaseko adinekoei elkarera joaten lagundu baitzieten; horrekin batera, Unión Artesanako bazkideen ekarpena ere azpimarratzekoa da, bazkaria prestatu baitzuten; eta, azkenik, Amara Berriko erretiratuen abesbatzari bazkalostea bere abestiekin girotzea eskertu nahi diogu.

Adinekoak, zuzendaritzetako kideak, abesbatza, zenbait elkartetako boluntarioak eta gizarte zibila (Unión Artesanako bazkideak zituen ordezkari) elkartu ziren eta gure adinekoei ilusioa sortzeko eta beren egunerokotasunetik ateratzeko giroa sortu zuten; eta, hain zuzen, hori bezalako uneek indartzen gaituzte gure boluntario-izaeran. Merezi du mota horretako ekitaldiak errepikatzen eta sustatzen ahalegintzea.

Gainera, horrelako ekitaldiei esker, zenbait elkartetako boluntarioek une atseginak eta komunikatiboak igarotzen dituzte elkarrekin, eta horri merezi duen balioa eman behar litzaioke.

## Txangoa Balmasedara

Ekainaren 8an, txango gastronomiko-kulturala egin genuen Balmasedara. Nagusilanekin lotura duten 97 pertsonak hartu genuen parte ekintza horretan, bi autobusetan banatuta.

Balmasedako herrian txango gidatua egin genuen, eta oso aberatsa eta hezigarria izan zen, hainbat leku bisitatu baikenituen, hala eraikin enblematikoak, nola museoak eta erromatar estiloko zubiak. Gidariak herria erakutsi ziguten eta, horrez gain, xehetasunez azaldu ziguten herriaren historiaren eta bilakaeraren zati garrantzitsu bat.

“La Encartada” txapelen antzinako lantegia ere bisitatu genuen. Gidariaren ekarpena bikaina izan zen, arin, luze eta osorik azaldu baitziguten garai hartako makineriari buruzkoa (bere garaian bezala mantentzen da). Gainera, gertatutako bilakaera azaltzen zuen bideo bat jarri zuten. Oso interesgarria izan zen.

Bisita kulturalen ondoren, adiskidetze-bazkari batean elkartu ginen. Bertan, janari gozoa jateaz gain, elkar agurtu eta lasai hitz egin genuen zenbait gaiz: egindako bisitekin zerikusia zutenak, batzuk; Nagusilaneko egunerokotasunari buruzkoak, gainerakoak.





## ***Txokolatada eta Pikoketara irteera Irunen***

Irungo Nagusilaneko taldeak, aurren, beste urte batzuetan bezala, txokolatada berezia prestatu du Irungo egoitzetako adineko pertsonentzat.

Irungo 30 boluntariok lagundu zuten, adineko 100 pertsona beren egoitzatik San Vicente de Paul ikastetxera eramateko, han egin baitzen txokolatada. Nagusilaneko sei sukaldari emakume animatuk prestatu zuten txokolatea talde jendetsu horrentzat, eta boluntario guztiek hartu zuten parte opilak eta zukua banatzen, bai eta txokolate gozoa banatzen ere.

Askaria amaitzeko, guztiek batera dantza egin zuten, eta abestu ere bai; oroimen atseginak ekartzen zizkieten abestiak abestu zituzten.

Oso egun polita da hori Irungo egoitzako adineko pertsonentzat. Irungo boluntarioek diote lan handia hartu behar dela guztia antolatzeko eta prestatzeko, baina

askoz handiagoa dela beren adinekoak txokolatadaz eta dantzaz gozatzen ikusteak ematen duen poza. Jarduera atsegingarri hau urte askotan egiten jarraitzea espero dute.

Txangoak antolatzeko, garai egokia da uda. Irungo kideek irteera bat antolatu dute Pikoketara, Aiako Harrien magalera, 5 egoitzetako adineko pertsonekin (Gurutze Gorria, Bidasoa, Inmaculada, Caser Anaka eta Betherram). Helburua argi dago: guztiok batera, egoitzetako hormetatik kanpo, aire libreaz gozatzea eta hamarretako bat egitea; hau da, adinekoek txango bat egitea, beren etxeetan bizi zirenean eta lagunekin ateratzen zirenean bezalaxe.



## **Udako ekintzak**

Ezinezkoa da argitalpen honetan zerrendatzea aurtengo udan zehar egin ditugun eta egingo ditugun ekintza guzti-guztiak. Asko dira Gipuzkoa osoko zahar-egoitzetan eta eguneko zentroetan antolatzen diren ekitaldiak, eta nabarmentzekoa gure boluntarioek eskaintzen duten laguntza, ekintza horiek egin ahal izateko.

Nagusilanen, gure 22 urteko ibilbidean, beti egin dugu lan ilusioz eta gogoz egoitzetako adineko pertsonak maite eta estimatzen dituztela senti dezaten, eta bizitzak ematen dituen poz txiki horietaz gozaten jarrai dezaten, ahal duten neurrian. Udako hiletan, eguraldia lagun izan dugun bakoitzean, aire zabaleko ekintzak egin ditugu: hurbileko



herrietara irteerak, edo gure herrietako eta hirietako leku enblematicoetara egindakoak, esaterako.

Argazki hauetan, egin ditugun ibilaldi eta txangoetako batzuk ikusten dira.



## **Nagusilan 2017 golf txapelketa**

Uztailaren 29an, XII. Nagusilan Golf Txapelketa jokatu zen Donostiako Golf Errege Klubean. Oso arrakastatsua izan zen, José Antonio Molinaren eta Nagusilaneko boluntario batzuen laguntzari esker. Gipuzkoako denda eta jatetxe hauen opariak lortu ziren: Olarra upeltegiak, Arbelaitz jantzi-denda, Ocre jantzi-denda, Ridel jantzi-denda, La Perla Talaso-Sport zentroa, Alacant Golf Kluba, Alacanteko el Plantío Golf Kluba, Hondarribiko Arrantzaleen Kofradia, Egoskozabal Abesbatza, Don Pascual, Ruiz Tapiador farmazia, Fernando Altube, Huntz loradenda, Gazpi, Iparbus, Isabel Sanz, Jose Mari Olazabal, Kett jantzi-denda, Marian Begiristain, Urbieta lurrin-denda, Ayestaran zilar-denda, Donostiako Errege Klub Nautikoa, Donostiako Golf Errege Kluba, Kaia jatetxea (Getaria) eta Maley apaindegi eta ileapaindegia. Opari horiek zero ilararekin lagundu zuten pertsonen artean zozketatu ziren. Zero ilara eta txapelketa hori egitea oso lagungarriak izan ziren gure lana egin ahal izateko, eta, gainera, arlo askotako jendeari Nagusilan ezagutarazteko aukera eman zigun.

Lerro hauen bitartez, gure esker on berezia bidali nahi diegu Donostiako Golf Errege Klubari eta beren laguntzarekin txapelketa hau, beste urte batez, egingarri bihurtu duten pertsona, entitate eta denda guztiei.



## Familiakoak bagina bezala

Nagusilan Bizkaia osatzen dugun pertsona guztiok oso pozik gaude egiten dugun lanarekin, eta oso zoriontsu gara gure denboraren zati bat “gure aiton-amonekin” egoten igarotzeaz.

Etxean bezala sentitzen gara zahar-egoitzetara programatutako animazio-ekintzak egitera joaten garenean edo gizarte-langileak esleitu dizkiguten pertsonekin egotean. Ikusten dugunez, egoitzan dauden adineko pertsonak ilusioz itxaroten digute. Gure zain egoten dira, beren eguneroko bizipenei “aire fresko” pixka bat eman diezaiegun. Beren bizitzan garrantzitsuak garela ikusarazten digute, eta, sarritan, kezka eta itxaropenak kontatzen dizkigute. Haietzat ez gara Nagusilaneko boluntarioak: Loli, Ignacio, Miren eta abar gara, haien neke-lagunak, konfiantzazko pertsonak, laguntzaileak.

## Barakaldo

Miranda Fundazioak, ekainaren 30ean, “familiaren eguna” antolatu zuen. Topaketa horretan, egoitzan daudenen familiakoek eta Nagusilaneko boluntariook arratsalde ahaztezina igaro genuen elkarrekin. Egoitzako arduradunek ahal zuten guztia egin zuten giro ona egon zedin eta guztiok egun berezia izan genezan. “Ikasturteari agur” esateko ekitaldi baten antzekoa izan zen. Askok udako oporrak hasiko genituen, eta aste batzuetan ez ginen egoitzara joango; beraz, atsegina izan zen elkar agurtzeko biltzea. Gure taldean, badira oporretara joango ez diren boluntarioak ere; haiek normaltasunez jarraituko dute egoitzara joaten.

## Lekeitio

Berri on bat dugu, hiru pertsona gehiago sartu baitira gure taldean. Miren, Vi eta Ignacio gure elkarteko boluntario bihurtu dira, eta ongietorria eman nahi diegu: ea egun gutxitan gu bezain zoriontsu diren Nagusilanekoak izateagatik.

Barakaldoko Miranda egoitzan bezala, Abaroa egoitzan ere topaketa bat antolatu zen egoitzako arduradunak, egoitzako adineko pertsonak, familiakoak eta Nagusilaneko boluntarioak biltzeko. Barreak eta poza izan ziren nagusi arratsalde horretan, eta inor ez zen sentitu bakarrik edo kezkatuta. Lekeitioko alkatea eta gizarte-zerbitzuetako zinegotzia gurekin izan ziren topaketan.

Bilera oso atsegina izan zenez, antzeko beste batzuk programatu ziren uztailaren eta abuztuaren amaierarako.

Luis Mari boluntarioa oso aktibo ibili da azkenaldian. Ohikoak zaizkion atzera-aurrerei, bera bezalako pertsona gormutu batzuen bisita gehitu zaie. Estatu guztiko pertsonak hurbildu ziren gure lurraldea ezagutzera. Luis Mari bisitak antolatu dizkie Gaztelugatxera, Gernikara, Bilbora, zenbait museotara eta abarretara. Gidari bikaina izan da, eta talde guztia oso gustura egon da berarekin.

Uztailaren 19an, Derion egin zen Vía Campesina nazioarteko biltzarra. Landa-eremuko 70 herrialdetako pertsonak elkartu ziren –komunitate indigena askotakoak–, landa-eremuko errealitatea aztertzeko. Lekeitioko Nagusilan bertan egon zen, eta antolatzaileei lagundu zien behar zuten guztian; bertaratuei janaria zerbitzatzeko, esate baterako.



## Arabako boluntarioen topaketa

Ekainaren 15ean, aurreko urteetan bezala, Arabako Foru Aldundiak Arabako boluntarioentzako topaketa bat antolatu zuen Amurrion. Urte osoan zehar Aldabe zentro zibikoan antolatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen dugun pertsona guztiok gonbidatu gintuzten topaketan parte hartzera.

Elkarteko psikologoaren hitzaldi interesgarri batekin hasi zen bilera: “Nor bere ahotsarekin bizitzea – autonomia pertsonalerako zerbitzu integrala”. Hitzaldiaren ondoren, talde txikitan elkartu ginen eta ikastaroan zehar egindako prestakuntza-jardueren balorazio bat egin genuen. Datorren ikasturtean landu nahi genituzkeen gaiak ere proposatu genituen.

Ekitaldia amaitu zenean, ibilalditxo bat egin genuen denok batera Arenalde jatetxeraino. Bertan, Foru Aldundiak adiskidetze-bazkari bat eman zigun Arabako boluntario guztioi. Horri esker, elkar ezagutzeko aukera izan genuen modu informalean, bai eta elkarren berri zertxobait gehiago jakiteko ere.



## Nagusilanen Batzar Orokorra

Joan den ekainaren 23an Donostiara gonbidatu gintuzten, Batzar Orokorra zela eta. Jende dezente joan ginen, eta kide berriak gurekin etorri ziren: Sara, José, Carlos eta Ricardo, Alex Somovillaz gain (gurekin ordu batzuetan egiten du lan, bulegoan lagunduz).

Bilera amaitu zenean, Gipuzkoako Nagusilan Abesbatzak emanaldi bikaina eskaini zigun. Amaitzeko, lunch bat eman ziguten, eta, bertan, beste herri batzuetako gure kideak agurtzeko aukera izan genuen.

Ekitaldia amaitu zenean, ibilalditxo polit bat egin genuen Aquariumeraino, eta han bisita gidatu interesgarri bat egin genuen.

Oso egun betea eta atsegina izan zen; gure kide Rosario

Armendarizekin gogoratu ginen bereziki, ezin izan baitzen gurekin izan, familiako bat hil zitzaiola eta.



Nagusilaneke boluntario guztiak, Andaluziakoak nahiz beste edozein herritakoak edo lekutakoak izan, bat datoz adineko pertsonen bizitza alaiago egiteko ilusioan, bai eta benetako irribarre zabal bat eskaintzeko ilusioan ere. Irribarreak horretan laguntzen du; izan ere:



## Irribarrea

*Irribarre bat ez da asko kostatzen,  
baina asko balio du.*

*Irribarrea oparitzen duena zoriontsu da eta  
jasotzen duenak eskertu egiten du.*

*Une batekoa baino ez da, eta haren oroimenak,  
batzuetan, bizitza osoan irauten du.*

*Ez dago hura behar ez izateko bezain aberatsa  
den inor, ez eta eman ezin izateko bezain pobrea  
den inor ere.*

*Zoriontasuna sortzen du etxean, oparotasuna  
negozioetan, eta lagunen arteko pasahitza da.*

*Atsedena nekatuarentzat, argia atsekabetuarentzat,  
eguzkia tristearentzat eta antidotoa arazoentzat.*

*Ezin da ez erosi, ez maileguan eskatu,  
ezta hartu edo lapurtu ere; opari bat baino ez da.*

*Eta irribarre egitea zer den ahaztu duenak  
behar du, batez ere.*

*Egin beti irribarre, irribarrea baita jaso  
dezakegun oparirik onena eta eman dezakegun  
gauzarik onena.*

*Presak direla-eta, zuri irribarre egiteaz  
ahazten banaiz, barkadazu: arren, emango  
zenidake zureetako bat?*

*Irribarre bat baita bizitzan aurrera egiteko dugun  
nortasun-agiririk onena.*





# nagusilan

adin nagusikoen giza boluntariotza  
voluntariado social de mayores

BOLETÍN DE NAGUSILAN

AÑO XVII • Número 139 • AGOSTO 2017  
Depósito legal D.L./L.G. SS-1120/01

## *A mal tiempo, buena cara*

Todos, en más de un momento a lo largo de nuestra vida, hemos utilizado el famoso dicho, “A mal tiempo, buena cara”, y hemos seguido adelante con nuestra actividad. En esta ocasión, han sido los voluntarios y voluntarias de Nagusilan, de diferentes poblaciones, quienes lo han dicho y demostrado.

Han sido muchos los días de junio y julio en los que, -tras tener todo preparado para poder realizar un paseo veraniego con los mayores de la residencia-, se han visto obligados a cambiar de planes debido al mal tiempo.

Como nos comentaba Rosarito Rementeria, responsable del grupo de Mutriku, “el mal tiempo no nos va a aguar el día, simplemente, cambiaremos de planes”. Han sido

varias las ocasiones en las que no han podido salir a disfrutar del buen tiempo y dar un paseo hasta el puerto para tomar un pintxo en una terracita con vistas al mar, pero en todas ellas han sabido organizarse para pasarlo estupendamente dentro de la residencia San Miguel. Han aplicado el dicho de “a mal tiempo, buena cara” y se han montado todo un festival, con canciones y bailes, en las salas polivalentes de la residencia.

Aunque todos disfrutamos mucho de los paseos veraniegos, del aire fresco en nuestras mejillas y de las terracitas con buenas vistas, (como se puede ver en la fotografía), para pasar un bonito día con nuestros mayores, no es necesario que haga buen tiempo.



*Bailando y cantando en la residencia San Miguel de Mutriku*

## www.nagusilan.org

### GIPUZKOA

Tel. 943 47 50 21 - Fax 943 46 55 81  
Tel. Hilo Plata / Zilarrezko zk.: 900 71 37 71  
Resurrección M.ª de Azkue, 32 bajo.  
20018 Donostia - San Sebastián  
e-mail: info@nagusilan.org

**Kutxa Gipuzkoa  
Solidarioak**  
onartutako egitasmoa  
Proyecto apoyado por  
**Kutxa Gipuzkoa  
Solidarioa**



**nagusilan**  
adin nagusikoen giza boluntariotza  
voluntariado social de mayores



## Asamblea Genaral de Nagusilan 23 de junio de 2017

El pasado día 23 de junio, a las 11 horas, en el Salón de Actos del Colegio Oficial de Médicos, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Nagusilan, previamente convocada, para dar cuenta de las actividades realizadas en el ejercicio 2016 y del estado de las cifras económica de dicho ejercicio ya cerrado.

Estuvieron presentes 101 personas voluntarias y delegaron su voto 67. Presidió la reunión don José Luís Elosua Sánchez, Presidente de la Asociación, acompañado del Secretario don Jesús M<sup>a</sup> Zaldúa Iñurritegui y de la Directora Gerente, Dña. Enara Solabarria Moreno. El sr. Presidente pronunció unas breves palabras de salutación, en especial para nuestros compañeros de Álava, e inició el acto.

El sr. Secretario procedió a la lectura del Acta de la Asamblea precedente, que fue definitivamente aprobada.

A continuación se desarrolló el Orden del Día previamente publicitado, iniciándose con la lectura de las cuentas anuales del ejercicio 2016. Dña. Enara Solabarria informó con detalle de las partidas más importantes de gastos e ingresos originados a lo largo de 2016. Dichas cuentas que fueron aprobadas por unanimidad, -habían sido ya visadas y también aprobadas por la Junta Directiva-, quien designó como Auditor de Cuentas para la revisión



*El Coro de Nagusilan actuando en la Asamblea*

de las mismas a D. Felipe Cruz Bienzobas, ROAC 2522. Doña Enara Solabarria enumeró también los retos a los que nos enfrentamos en estos próximos seis meses.

A continuación el Sr. Presidente inicio su intervención para enumerar los hechos más relevantes del ejercicio 2016 con un agradecimiento a los asistentes, un saludo especial a los que asistían por primera vez a nuestras Asambleas y un recuerdo entrañable para los que nos han dejado para siempre a lo largo del ejercicio. Este recuerdo se concretó en un minuto de silencio.



*Informándonos en la Asamblea de Nagusilan*



*Voluntariado y residentes de San José de Ordizia*

## ***Celebrando las fiestas patronales***

En estas fechas estivales se celebran, en gran cantidad de poblaciones, las fiestas patronales. Son fechas en las que se reúnen las familias y las amistades para celebrar San Juan, Santa Ana, San Fermín, San Ignacio,... fiestas en las que todos queremos participar, estar con nuestros amigos y amigas, saludar a conocidos y vecinos, vivir el ambiente festivo.

El voluntariado de Nagusilan de Ordizia, Zarautz, Azpeitia, Errenteria, Mutriku... y de todos los pueblos, se vuelca especialmente en estas fechas para que los mayores de las diferentes residencias y centros de Día puedan disfrutar también del ambiente festivo. Se organizan para salir con los mayores a dar paseos, ir a comidas populares, ver partidos de pelota, disfrutar del txupinazo de inicio de las fiestas,...acercar la fiesta a los mayores. Hacer que todos, independientemente de su edad, puedan disfrutar del ambiente festivo.



*Voluntariado y residentes de Sagrado Corazón de Errenteria*

## Fin de curso en el Tipi Tapa

Los paseos saludables promovidos por Osakidetza -bajo diferentes nombres-, para animar a las personas mayores a caminar, están teniendo muy buena acogida entre los mayores gipuzkoanos. Desde Nagusilan estamos colaborando activamente en su promoción y desarrollo. Son muchas las poblaciones (Legazpi, Beasain, Ordizia, Irun, Tolosa, Lasarte, Zumaia...) en las que los voluntarios y voluntarias de Nagusilan colaboran semanalmente en los paseos. Cada población tiene su forma particular de organizarse pero en todas ellas hay voluntarios y voluntarias de Nagusilan que forman parte del grupo organizador o motor.

En el periodo estival, dado que el calor aprieta en muchas ocasiones y que se realizan otras actividades diferentes, el Tipi Tapa se toma unas vacaciones, para volver en septiembre a sus recorridos habituales.

Durante el curso se han realizado muchos paseos y se ha conocido multitud de personas. Desde Nagusilan se ha colaborado activamente para que personas de diferentes edades y condiciones físicas puedan participar en los mismos, relacionarse los unos con los otros y disfrutar



Foto de grupo Tipi Tapa Irun

caminando, charlando y hasta cantando, todos juntos.

Como cierre de curso, en muchas poblaciones se ha organizado un paseo y un acto especial, con un amaiketako extraordinario y hasta con entrega de premios a los más asiduos. A modo de ejemplo comentaremos que en Beasain organizaron un acto muy bonito con un buen amaiketako, en Irun dieron el paseo de cierre vestidos de San Marcial y nombraron a María, de 88 años, Cantinera Mayor. En Hondarribia organizaron un acto al que acudieron el concejal, Juan Luis Silanes, y la directora de deportes para entregar unos detalles a los caminantes más activos y agradecer a Nagusilan su implicación en la organización de los paseos y su participación acompañando a los mayores de San Gabriel.



Tipi Tapa en Beasain

## Unidos por nuestros mayores - Comida en la Unión Artesana

El pasado día 28 de Junio se celebró una comida de confraternización en la Sociedad de la Unión Artesana entre voluntarios y directivos de La hospitalidad de Lourdes, directivos de Nagusilan y directivos y mayores de la Residencia Sanitas.

La comida fue propuesta y organizada, por nuestro voluntario Javier Llorca, en su condición de socio de la



*Buena comida y mejor ambiente en la Unión Artesana*

Unión Artesana, voluntario de La hospitalidad de Lourdes y voluntario de Nagusilan. Javier desarrolla su labor en Sanitas, cantando el bingo todas las semanas para entretener a los mayores.

Al final de la comida, la Dirección de Sanitas reconoció la labor de la Unión Artesana mediante una placa que entregó a su Presidente por amenizar con su tamborrada, los últimos años, a los mayores residentes en Sanitas.

Merece destacar la labor de los voluntarios y voluntarias de La Hospitalidad de Lourdes que facilitaron la presencia de los mayores de Sanitas en la Sociedad, la aportación de los socios de la Unión Artesana preparando la comida y el Coro de Jubilados de Amara Berri que amenizó la sobremesa con sus canciones.

Momentos como éstos en que voluntarios y voluntarias de distintas asociaciones, mayores, directivos, Coro y la sociedad civil representada por los socios de la Unión Artesana, crean un ambiente que ilusiona a nuestros mayores y les saca de su rutina diaria son los que hacen que nos reafirmemos en nuestro voluntariado. Merece la pena plantearse el repetir e incentivar este tipo de actos.

También hay que poner en valor el que estos acontecimientos permiten compartir momentos agradables y comunicativos entre voluntarias y voluntarios de distintas asociaciones.

## Excursión a Balmaseda

El 8 de junio realizamos una excursión gastrocultural a Balmaseda. Un total de 97 personas vinculadas a Nagusilan, repartidas en dos autobuses participamos en dicha actividad.

Realizamos una excursión guiada a la localidad de Balmaseda que fue muy instructiva y amplia, por la visita a distintos lugares, tanto de edificios emblemáticos como puentes de estilo romano y museos. Los guías supieron, además de enseñarnos el pueblo, explicarnos detenidamente una parte muy importante de su historia y evolución.

Visitamos también, la antigua fábrica de boinas "La Encartada", con la positiva aportación de los guías que supieron informar con agilidad de lo amplio y completo de la maquinaria de la época que se mantiene intacta. Asimismo, mostraron un vídeo explicativo sobre la evolución sufrida. Resulto muy interesante.

Tras las visitas culturales, nos reunimos en una comida de confraternización, en la que todos pudimos, -además de degustar una agradable comida-, saludarnos y comentar, de forma distendida diferentes aspectos, tanto de las visitas realizadas como de nuestro día a día en Nagusilan.



*Visitando el Museo de Balmaseda*



*Visitando la fábrica de boinas "La Encartada"*



Reponiendo fuerzas tras el paseo en Pikoketa

## Chocolatada y salida a Pikoketa en Irun

El grupo de Nagusilan Irun, este año, como en otras ocasiones, ha preparado una Chocolatada Especial para los mayores de las diferentes residencias de Irun.

Un total de 30 voluntarios y voluntarios de Nagusilan Irun colaboraron en el traslado de 100 personas mayores de la residencia en la que viven, al colegio San Vicente Paul, en el que se celebró la chocolatada. Seis animadas cocineras de Nagusilan prepararon el chocolate para el nutrido grupo y todo el voluntariado participó en el reparto de los bollos y zumo, así como del rico chocolate.

Para terminar la merienda bailaron y cantaron todos juntos, canciones que les traían bonitos recuerdos.

Es un día muy bonito para los mayores residenciados de Irun. Las voluntarias y voluntarios de Irun comentan que es mucho el trabajo de organizar y preparar

todo pero que es mucho mayor la satisfacción de ver disfrutar de la chocolatada y del baile a sus mayores. Esperan poder continuar muchos años con esta actividad tan gratificante.

El verano es fecha propicia para organizar excursiones. Los compañeros de Irun han organizado una salida a Pikoketa, en las faldas de Peñas de Aya, con los mayores de 5 residencias (Cruz Roja, Bidasoa, Inmaculada y Caser Anaka y Betherram). Se trata de disfrutar del aire libre y tomar un aperitivo, todos juntos, fuera de las paredes de las residencias, de hacer una excursión como cuando vivían en sus casas y salían con sus amistades.



Bailando tras la chocolatada

## **Actividades veraniegas**

Resulta imposible enumerar, en esta publicación, todas y cada una de las diferentes actividades que hemos realizado y vamos a realizar a lo largo de este verano. Son muchos los eventos que se organizan en las Residencias y Centros de Día de todo Gipuzkoa y mucha la colaboración que ofrece nuestro voluntariado para que se puedan llevar a cabo.

Desde Nagusilan, a lo largo de nuestros 22 años de andadura, siempre hemos trabajado, con ilusión y entusiasmo, para que las personas mayores residenciadas se sientan queridas y apreciadas y puedan, -en la medida de sus posibilidades-, seguir disfrutando de las pequeñas alegrías de la vida. En los meses de verano, y siempre que



*Visitando la Basílica de Leizola*

el tiempo lo ha permitido, hemos realizado actividades al aire libre, salidas a poblaciones cercanas o a lugares emblemáticos de nuestros pueblos y ciudades.

En las siguientes fotografías podemos ver algunos de los paseos y excursiones que hemos realizado.



*Disfrutando de las vistas en Igueldo*

## **Torneo de Golf Nagusilan 2017**

El 29 de julio se celebró el XII Torneo de Golf Nagusilan en el Real Golf Club de San Sebastián. Gracias a la colaboración de José Antonio Molina y del personal y socios del Club, resultó todo un éxito. Se consiguieron regalos de los siguientes comercios y restaurantes gipuzcoanos: Bodegas Olarra, Boutique Arbelaitz, Boutique Ocre, Boutique Ridel, Centro Talaso-Sport La Perla, Club de Golf Alicante, Club de Golf el Plantío de Alicante, Cofradía Pescadores Hondarribi, Coro Egoscozabal, Don Pascual, Farmacia Ruiz Tapiador, Fernando Altube, Floristería Huntz, Gazpi, Iparbus, Isabel Sanz, Jose Mari Olazabal, Boutique Kett, Marian Beguiristain, Perfumería Urbietta, Platería Ayestaran, Real Club Náutico de San Sebastián, Real Golf Club de San Sebastián, Restaurante Kaia (Getaria) y Salón Peluquería Maley. Regalos que se sortearon entre las personas que colaboraron con la Fila Cero. La celebración de dicho Torneo y la Fila Cero nos aportó una inestimable ayuda para poder desarrollar nuestra labor y nos dio la posibilidad de dar a conocer Nagusilan a personas de ámbitos muy diferentes.

Desde aquí queremos enviar nuestro especial agradecimiento al Real Golf Club de San Sebastián y a todas las personas, entidades y comercios que con su apoyo han hecho posible, un año más, la celebración de dicho Torneo.



*Entrega de premios al finalizar el Torneo*

## ***Somos como de la familia***

Todas las personas que componemos Nagusilan Bizkaia, estamos encantadas con la labor que realizamos, y nos sentimos muy felices dedicando parte de nuestro tiempo a acompañar a “nuestros abuelos”.

Nos sentimos como en casa, cuando llegamos a las residencias de mayores para hacer las actividades de animación programadas o para acompañar a las personas que nos han asignado las trabajadoras sociales. Vemos que los mayores que están en la residencia, nos están esperando con ilusión. Que cuentan con nosotros para llevarles un poco de “aire fresco” a su día adía. Nos hacen ver que somos parte de su vida y comparten, en muchas ocasiones, sus preocupaciones y anhelos con nosotras. Para ellos no somos los voluntarios o las voluntarias de Nagusilan somos Loli, Ignacio, Miren...sus amigos, sus compañeras de fatigas, sus confidentes, su apoyo.

### ***Barakaldo***

La Fundación Miranda, el 30 de junio, organizó “el día de la familia”. Un encuentro en el que los familiares de los residentes y los voluntarios y voluntarias de Nagusilan compartimos una tarde inolvidable. Los responsables de la residencia hicieron todo lo que estaba en su mano para que reinara el buen ambiente y todos disfrutáramos de un día especial. Fue una especie de “despedida de curso”. Muchos iniciábamos nuestras vacaciones de verano y en unas semanas no acudiríamos a la residencia y fue bonito juntarnos para despedirnos. También hay en el grupo voluntarias y voluntarios que no se van de vacaciones y que seguirán acudiendo con total normalidad a la residencia.

### ***Lekeitio***

Tenemos la buena noticia de la incorporación de tres personas más a nuestro grupo. Miren, Vi e Ignacio se han unido a nuestro voluntariado y queremos darles la bienvenida, esperando que en unos pocos días se sientan tan felices como nosotros de pertenecer a Nagusilan.

En la residencia Abaroa, al igual que en la residencia Miranda de Barakaldo, se organizó un encuentro entre responsables de la residencia, residentes, familiares y voluntariado de Nagusilan. Fue una tarde en la que solo se oyeron risas y alegría, una tarde en la que nadie se sentía solo o angustiado. El Alcalde de Lekeitio y el Concejale de Servicios Sociales, nos acompañaron durante el encuentro. Dado lo agradable que resultó dicho encuentro se programaron otros similares para finales de julio y agosto.

El voluntario Luis Mari, ha estado muy activo últimamente. A su ajetreo habitual se le ha unido la visita de un grupo de personas sordomudas, como él. Personas de todo el estado se acercaron para conocer nuestra tierra. Luis Mari les ha organizado visitas a Gaztelugatze, Gernika, Bilbao, varios museos...Ha sido un guía excepcional y todo el grupo ha estado encantado con él.

El 19 de julio, se celebró en Derio el encuentro internacional Vía Campesina. Personas del mundo rural de 70 países, de diferentes comunidades indígenas, se reunieron para tratar sobre la realidad del mundo rural. Nagusilan Lekeitio estuvo presente apoyando a la organización en todo lo que fue necesario, llegando incluso a ayudar a servir la comida a los asistentes.



*Cantando para nuestros mayores*

## Encuentro del voluntariado de Araba

El 15 de junio, al igual que en años anteriores, la Diputación Foral de Araba organizó en Amurrio, un encuentro del voluntariado alavés. Todas las personas que participamos en los cursos formativos organizados, a lo largo del año, en el centro cívico Aldabe, fuimos invitadas a participar en el encuentro.

El encuentro comenzó con una interesante charla a cargo del psicólogo de la asociación "Vivir con voz propia – servicio integral para la autonomía personal". Tras la charla nos reunimos en pequeños grupos y realizamos una valoración de las actividades formativas realizadas a lo largo del curso. Planteamos también, los temas que nos gustaría trabajar el próximo curso.

Finalizado el evento dimos un pequeño paseo, todos juntos, hasta el restaurante Arenalde, en el que la Diputación Foral nos ofreció una comida de confraternización, a todas las personas que participamos en el voluntariado de Araba. Esto nos dio la posibilidad de conocernos, de forma informal, y saber un poco más los unos de los otros.



Asistentes al encuentro de voluntariado en Amurrio



Participando en la Asamblea de Nagusilan

## Asamblea General de Nagusilan

El pasado 23 de junio fuimos invitados a Donostia con motivo de la Asamblea General. Acudimos un nutrido grupo acompañados de las nuevas incorporaciones: Sara, José, Carlos y Ricardo, además de Alex Somovilla, que trabaja unas horas con nosotras ayudándonos en la oficina.

Al finalizar la reunión pudimos disfrutar de la actuación del Coro de Nagusilan Gipuzkoa y como cierre degustamos un lunch que nos dio la posibilidad de saludar a nuestros compañeros y compañeras de otras localidades.

Finalizado el evento dimos un bonito paseo hasta el Aquarium donde realizamos una interesante visita guiada.

Fue un día muy intenso y agradable en el que nos acordamos especialmente de nuestra compañera

Rosario Armendariz, quien no pudo acompañarnos por el fallecimiento de un familiar.



Una foto durante la comida

Todo el voluntariado de Nagusilan, tanto de Andalucía como de cualquier otra población o lugar, comparte la ilusión por alegrar la vida de las Personas Mayores. Una buena sonrisa, amplia y sincera, es un buen modo de hacerlo, ya que:



Ayudando a sonreír

## La sonrisa

*Una sonrisa cuesta poco, pero vale mucho.  
Quien la da es feliz y quien la recibe la agradece.  
Dura sólo un instante y su recuerdo, a veces,  
perdura por toda una vida.*

*No hay nadie tan rico que no la necesite,  
ni nadie tan pobre que no la pueda dar.  
Produce felicidad en el hogar, prosperidad en los  
negocios y es contraseña entre los amigos.*

*Es descanso para el cansado, luz para el desolado,  
sol para el triste y antídoto para los problemas.  
No se puede comprar ni pedir prestada,  
tomarla o robarla, sirve sólo como regalo.*

*Y nadie necesita tanto de una sonrisa  
como quien se olvidó de sonreír.  
Sonríe siempre porque la sonrisa es el mejor regalo  
que podemos recibir y lo mejor que podemos dar.*

*Si con las prisas me olvido de darte una sonrisa,  
discúlpame: ¿Tendrías la bondad de darme una de  
las tuyas?  
Porque una sonrisa es la mejor cédula de identidad  
que tenemos para caminar por la vida.*



Compartiendo nuestro tiempo